



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko azaroaren 27a

142. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru-lege proiektuak:**

—11-25/LEY-00009. 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua. Osoko Bilkurak osoko zuzenketak ezetsi ditu (2. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

—11-25/PRO-00016. Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

—11-25/PRO-00017. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (8. or.).

—11-25/PRO-00018. Foru-lege proposamena, nekazaritza-, abeltzaintza- eta oihan-sektoreetan karbono-kredituen ziurtagarria eta komertzializazioa arautzeko. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (8. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-25/PEOP-00001. Deialdia, oposizio bidez betetzeko Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko sistema informatikoetako goi-mailako teknikaria izateko plaza bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda (9. or.).

#### J SAILA:

##### **Ponentziak:**

—11-23/PON-00002. Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertzeko eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentzia. Txostena bukatzeko epea luzatzea (11. or.).

—11-23/PON-00002. Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertzeko eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentzia. Seigarren araua aldatzea (11. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

**11-25/LEY-00009. 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua**

*OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETAK EZETSI DITU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko azaroaren 20an egindako bilkuran, ezetsi egin ditu 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektuari Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioek eta Talde Mistoak aurkeztutako osoko zuzenketak.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamendua-ren 151.6 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2025eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **11-25/PRO-00016. Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena**

### *OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko azaroaren 20an egindako bilkuran, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena**

#### **HITZAURREA**

9/2025 Foru Legea, ekainaren 30ekoa, Nafarroan etxebizitza ordainerraza izateko eskubideari buruzkoa, zeinaren bidez aldatzen baitira Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea eta uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena, aldaketa-eragile itzela izan da Nafarroan etxebizitza babestuak esleitzeko eredu eta araubidearentzat, eta munta handiko hobekuntzak ekarri ditu etxebizitza egoki eta ordainerraz bat eskuratzeari dagokionez.

Hala ere, foru lege horrek indarra hartu ondoren, lausotasun tekniko batzuk aurkitu zaizkio, arauaren funtsezko edukia aldatzen ez badute ere haren aplikazio bete-betea zaildu egiten dutenak, batez ere etxebizitza babestuak esleitzeko prozeduren izapidetzeari dagokionez.

Aldaketa honen asmoa da, horrenbestez, desdortasun tekniko txiki horiek zuzentzea eta, halatan, esleipen-sistema berriaren inplementazio

egokia erraztea, berme administratibo nahiz informatiko erabatekoarekin.

Halaber, zenbait neurri jasotzen dira, etxebizitzaren funtzio soziala indartzeko eta badauden etxebizitzaren erabilera bidezkoagoa eta efizientea-agoa bermatzeko. Horrenbestez, zehaztasun handiagoz zedarritzen da etxebizitza hutsak definitzeko sistema, eta errentan emanaraztearen figura apailatzen da etxebizitza huts deklaratuak izan eta hutsik urtebete baino gehiagoz egon diren etxebizitzentzat.

Bestalde, foru legearen hogeita seigarren xedapen gehigarria kentzen da, haren aplikazioak duen zuzenbidezko zailtasunagatik; izan ere, josten da haren edukia ez zaiola behar bezala egokitzen Parlamentuaren legegintza-jardunari. Haren orde, hogeita zazpigarren xedapen iragan-korra txertatzen da, zeinak lankidetzazko etxebizitza jasotzen baitu dauden etxebizitzak eskuratu, erabili eta kudeatzeko modu berri bezala, oinarri harturik elkarlanean, jabetza kolektiboan eta jabetza indibidualako araubidearen ordezkotzat jotako erabilera-eskubidean. Aurreikuspen horren helburu nagusia da etxebizitza-modalitate horrek araubide bat izan dezala, jadanik badagoen araudi bat esleitzuz horri, zuzenbide-hutsunerik ez dadin egon harik eta modalitate horren garapen integrala egiten duen berariazko araudi bat onesten den arte.

Azkenik, hogeita hamalagarren xedapen gehigarri berria eranstean zaio Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeari, xedetzat harturik despopulazte-arriskuan dauden udalerrietako birgaikuntzei bultzada ematea. Dirulaguntzak eta laguntza publikoak foru agindu bitartez indartzeko aukera ezartzen da, populazioaren finkapenari laguntzeko eta landa-ingurunearen biziberritzea sustatzeko.

**Artikulu bakarra.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeari honako aldaketa hauek egiten zaizkio:

Bat. Aldatu egiten dira 18. artikuluko 1. apartatuko a) eta b) letrak. Honela gelditzen dira idatzita:

“a) Jomuga diren pertsonen familia-dirusarrera ponderatuak txikiagoak izatea ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren Adierazlea bider 4,5 baino.

Errentamendu-araubideko etxebizitzaren kasuan, jomuga diren pertsonen familia-dirusarrera ponderatuak egon beharko dira 5.000 eurotik ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren Adierazlea bider 2,5erako tartean.

Errentamendu ordainerrazeko araubidekoak diren etxebizitzaren kasuan, jomuga diren pertsonen familia-dirusarrera ponderatuak handiagoak izan beharko dira ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren Adierazlea bider 2,5 baino, eta txikiagoak adierazle hori bider 4,5 baino.

b) Jomuga diren pertsonen gutxieneko dirusarrerak 19.000 eurokoak izatea jabetza-araubidean eta erabilera-lagapeneko araubidean”.

Bi. 25. bis artikulua 1. apartatua kentzen da.

Hiru. 26. artikulua h) eta i) letrak aldatzen dira. Hona haien testu berriak:

“h) Hala badagokio, sustapena kokatuta dagoen udalerrian erroldatuta egonik udalerriri horretan etenik gabe egiazki bizitzen hiru urte gutxienez eman dutenak. Babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, horiek sustatuta daudenean udalaren titulartasuneko lurzoruetan edo sozietate publiko batek lehenago udalaren titulartasunekoak izan eta helburu honekin eskualdatuak izan ziren lurzoruetan, udalak zilegi izanen du udalerrian erroldaturiko pertsonentzat erreserbatutako etxebizitzaren kopurua erabakitzea.

i) 50 etxebizitzako edo gehiagoko sustapenetan, % 2ko erreserba aurreikusiko da kategoria bereziko familia ugariarentzat. Etxebizitza bat erreserba berezi horren bitartez eskuratzen duten eskatzaileek ezin izanen dute parte hartu artikuluko honen c) apartatuak aipatzen duen erreserban sartutako etxebizitzak esleitzeko egiten den hautaketa-prozesuan, bi erreserba horiek bateraezinez direnez gero”.

Lau. 27. artikuluko 2. apartatuko b) letra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“b) Familia-dirusarrera ponderatuak ERREGEROSNA-Errenta Egokiagatiko Erosahalmen Nahikotasunaren adierazlea bider 2,5 baino gehiagoak dituzten eskatzaileentzat, babes ofizialeko etxebizitzaren % 70 eta prezio tasatukoaren % 80”.

Bost. 28. artikuluko 1. apartatuko a) letra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“a) Zazpi puntu, eskaera sinatzen duten eskatzaileetako bakoitzeko eta haien familia-unitateen kide bakoitzeko. Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, eskatzailearen familia-unitatearen parte izanen dira ondorengo ahaideak, haien gaineko guraso-ahala eskatzailearen esku baldin badago, modu partekatuan bada ere”.

Sei. 29. artikuluko 1. apartatuko g) letra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“g) 50 etxebizitzako edo gehiagoko sustapenetan, % 2ko erreserba aurreikusiko da kategoria bereziko familia ugariarentzat. Etxebizitza bat erreserba berezi horren bitartez eskuratzen duten eskatzaileek ezin izanen dute parte hartu artikuluko honen c) apartatuak aipatzen duen erreserban sartutako etxebizitzak esleitzeko egiten den hautaketa-prozesuan, bi erreserba horiek bateraezinez direnez gero”.

Zazpi. 30. artikulua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“30. artikulua. Erreserba berezietarako baremoa.

1. 29.1 artikuluan aipaturiko erreserba berezietako bakoitzaren barrenean jasota dauden errentamendu-araubideko eta errentamendu ordainerrazeko araubideko etxebizitza babestuak foru lege honen 28. artikuluan ezarritako dagoen puntuazio-baremoa aplikatuz izanen dira esleituak.

2. Hala ere, 28. artikulua 2. apartatuak xedatzen duena ezin izanen da aplikatu ez eta puntuatu ere errentamenduko eta errentamendu ordainerrazeko araubideetako etxebizitza babestuak esleitzeko”.

Zortzi. Letra bat, g) letra hain zuzen, gehitzen zaio aipatu 42. bis artikulua 3. apartatuari. Hauxe dio:

“g) Nahiz eta etxebizitza huts deklaratu ahalko direnak Nafarroako Foru Komunitatearen esparru geografikoan kokatuta daudenak bakarrik izan, titularrak guztira dauzkaten etxebizitzaren kopurua

zehazte aldera aintzat hartuko dira titularrek Espainiako Estatuaren lurralde osoan dauzkaten etxebizitza guztiak, zein ere den haien titulartasunaren gaineko portzentajea”.

Bederatzi. 42. octies artikulua berria gehitzen da, V.Bis tituluko III. kapituluaren. Hona testua:

“42. octies. Etxebizitza hutsak errentan emaraztea.

1. Zilegi izanen da errentan emaraztea etxebizitza hutsaren deklarazioa irmo bilakatu eta biharamunetik kontatzen hasita urtebetez hutsak iraun duten etxebizitza hutsak, baldin eta Etxebizitza Hutsen Erregistroan sartuta badaude. Etxebizitza horiek NASUVINSAREN Alokairu Poltsan edo Nafarroako Gobernuaren nahiz haren ente instrumentalen menpe dauden antzeko programa indar-dunetan sartu ahalko dira.

2. Errentan emarazteari buruzko erabakia hartu ahalko du Nafarroako Gobernua etxebizitza-alorraren gaineko eskumena duen departamentuko organo eskudunak. Horretarako, frogatu beharko du etxebizitza aurkitzen den lurraldean badagoela etxebizitza-eskaria eta -premia.

3. Entzutea eman beharko zaie emarazte horrek ukitzen dituen pertsona fisiko edo juridiko guztiei. Entzute-ematearen tramitea egin beharko da oraindik ez denean erabakirik hartu, deklaratzekorik ezen, bermatu eginen bada etxebizitza huts deklaratu den horren funtzio soziala betetzen dela, neurri hori hartu beharra dagoela.

4. Eginen diren lehenbiziko urratsak izanen dira erregistro publikoetan etxebizitza hutsaren jabe gisa edo etxebizitzaren gaineko erabilera-eskubidedun gisa agertzen direnekikoak.

5. Duten funtzio soziala betetzen dela bermatze aldera etxebizitza hutsak errentan emarazteko beharra dagoela deklaratzeko duen erabakia jarraian adierazten diren zertzeladak jaso beharko ditu behar adinako titulutzat hartua izateko. Organo eskudunak:

a) Frogatuko du ezen errentan emarazten diren etxebizitza huts hala deklaratuak gutxienez urtebete ematen dutela hutsik deklarazioa irmo bilakatu eta biharamunetik; Etxebizitza Hutsen Erregistroan sartuta daudela, eta etxebizitza-eskaria eta -premia badauden eremuetan kokatuta daudela.

b) Etxebizitza deskribatuko du eta alokairuko etxebizitzaren mantentze-baldintzak zehaztuko ditu, bai eta errentamenduaren iraupen-epea ere, zeina ez baita luzeagoa izanen 7 urte eta 6 hilabete baino.

c) Hamabost eguneko epea emanen die errentan emarazteak ukituriko pertsona fisikoei eta juridikoei.

6. Bidezkotzat jotzen da etxebizitza hutsak erabiltzeko eskubideaz aldi baterako desjabetzea errentan emaraztearen bitartez, oinarri harturik jabetzaren funtzio sozialaren urraketan, zeina jadanik aurreikusita baitago foru lege honetan.

7. Errentan emaraztearen prozedura bukatu denean, etxebizitza NASUVINSAREN Alokairu Poltsaren programan nahiz indarra duen antzeko beste batean sartuko dute etxebizitza-alorreko eskumena duen departamentuak edo horren ente instrumentalek. Esleitua izanen da horretarako ezarritako prozedurari jarraituz, eta jabeak edo jabeek izanen dituzte programa horretan sartuta dauden gainerako etxebizitzaren jabeek dagozkien eskubide eta betebeharrak”.

Hamar. Hamabosgarren xedapen gehigarria aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“Hamabosgarren xedapen gehigarria. Errentamendu-kontratuen esleipena eta berritzea.

Babes ofizialeko etxebizitzaren eta Alokairu Poltsari atxikitako etxebizitzaren errentamendu-kontratuak urtero esleitzen eta berritzean, kontuan hartuko dira, dirulaguntza bat eskuratzeko, aurreko urteko zerga-aitorpenetik heldutako datuak.

Hala ere, baldin onuradunen egoera ekonomikoa halako moduan aldatzen bada non urteko diru-sarrerak gutxienez % 20 murrizten baitira aurreko urteko errenta-aitorpenean deklaratuak diru-sarreraren aldean, kontratua berritzeko eskabidean onuradunek zilegi izanen dute eskatzea une horretako egiazko diru-sarrerak aintzat har daitezela”.

Hamaika. Hogeita hamalagarren xedapen gehigarri berria erantsen da. Testu hau izanen du:

“Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. Araubide berria, despopulazte-arriskuko egoerakotzat deklaratuak izan diren udalerrietako etxebizitzaren eraikitze-birgaikuntzako jarduketetarako.

1. Nafarroako administrazio publikoek, zeinek bere eskumenen esparruan, etxebizitzaren eraikitze-birgaikuntzako jarduketak sustatu eta bultzatuko dituzte, arreta berezia eskainirik despopulazte-arriskuko egoerakotzat deklaratuak izan diren udalerriek.

2. Udalerri horien premia bereziak direla-eta, etxebizitza-alorrean eskudun den departamentuko kontseilariak foru agindu bidez igo ahalko ditu kasu-

ko araudian aipaturiko birgaitze-jarduketarako dirulaguntzen zenbatekoak, xedetzat harturik lagungarri gerta daitezten lurraldeari populazioa atxikitzeko.

3. Aurreko apartatuan xedatzen dena halaber aplikatu ahalko zaie despopulazte-arriskuko egoerakotzat deklaraturiko udalerrietan egiten diren Esku-hartze Globaleko Proiektuetako jarduketarako aurreikusten diren laguntzei”.

Hamabi. Hamabosgarren xedapen iragankorren 6. apartatuko b) letra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“b) Amiantodun elementuak kendu beharrekoak gertatzen diren kasuetan, zilegi izanen da laguntza gehigarri bat ematea, enpresa baimenduek amiantohondakinak kendu, manipulatu, garraiatu eta kudeatzearen ondoriozko kostuei aurre egitekoa. Laguntza horren zenbatekoa 1.000 eurokoa izanen da etxebizitza bakoitzeko, eta gehieneko muga 18.000 eurokoa izanen da birgaitzen den eraikin bakoitzeko.

Zilegi izanen da aipaturiko zenbatekoak eta portzentajea aldatzea etxebizitzaren arloan eskuмена duen departamentuko kontseilariaren foru aginduz.

Salbuespen gisa, baldin eta foru lege honek indarra hartzen duen unean eraikinaren ingurutzaille termikoaren hobekuntzagatiko birgaitze babestuko behin-behineko kalifikazioa emana daukaten espedienteen sustatzaileek ez badute behin betiko kalifikazioa eskatu, zilegi izanen dute eskatzea, lege honek indarra hartzen duenetik hiru hilabeteko gehieneko epean, onetsiak izan dakizkien, kasua bada, a) letran zehaztutako portzentaje berriak eta gehieneko dirulaguntza. Horretarako, frogatu beharko dute epe barranean dirulaguntza-eskaera bat aurkeztu izana, ez dena ez onetsia ez errefusatu izan, ez eta horretan atzera egin ere, honako deialdi hauetakoren baterako:

– Erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetan energia-birgaitze jarduketak egiteko dirulaguntzen deialdia, PREE 5000 programa, 691/2021 Errege Dekretuaren arabera, Etxebizitzako zuzendari nagusiaren azaroaren 3ko 2723/2021 Erabakiz onetsia.

– Badauden eraikinetan energia-birgaikuntzarako jarduketak egiteko "Eraikinak, SEM-Susperze eta Erresilientzia Mekanismoa 2023" dirulaguntza-deialdia, Etxebizitzako zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 901/2022 Erabakiaren bitartez onetsia”.

Hamahiru. Hogeita batgarren xedapen iragankorra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“Hogeita batgarren xedapen iragankorra. Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erroldaren bitartezko etxebizitza-esleipenerako sistemen eta prozeduren aplikazio-eguna.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen III. tituluan jasotzen diren xedapen berriak aplikatuko zaizkie etxebizitza babestuek esleitzeko 2026ko irailaren 1etik aurrera hasiak diren prozedurei, zein ere den kasuko espedienteak behin-behineko kalifikazioa lortzen duen eguna. Hona albuespenak:

– Kategoria bereziko familia ugarietzako % 2ko erreserbak nahitaezkoak izanen dira behin-behineko kalifikazioa 2026ko irailaren 1etik aurrera eskatzen duten proiektuentzat bakarrik.

– Behin-behineko kalifikazioa 2026ko irailaren 1a baino lehenago lortu duten errentamendu-araubideko etxebizitzetarako espedientei buruzko prozeduretan, zeinetan erreserba-portzentajea, udalaren erroldaturikoentzako, handiagoa baita lege ezarritakoa baino, esleipenak eginen dira lorturiko behin-behineko kalifikazioan agertzen diren portzentajeak errespetatuz”.

Hamalau. Hogeita bigarren xedapen iragankorren 2. apartatuko b) letra aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“b) Errentamendu ordainerrazeko araubidekotzat kalifikaturiko etxebizitzetarako espedienteetako esleipen-prozedurak 2026ko martxoaren 1etik aurrera hasi ahalko dira.

2026ko martxoaren 1etik irailaren 1era bitartean, esleipen horiek eginen dira errentamendu-araubideko etxebizitza babestuentzat lehenagoko araudiak aurreikusitako erreserbak, baremoa eta prozedura errespetatuz, baina halere aplikatuz foru lege honen 18. artikulua ezartzen dituen ahalmen ekonomikoari buruzko irizpideak”.

Hamabost. Hogeita seigarren xedapen iragankorra kentzen da.

Hamasei. Hogeita zazpigarren xedapen iragankor berri bat sortzen da, honako eduki honekin:

“Hogeita zazpigarren xedapen iragankorra. Lankidetzako etxebizitza.

1. Foru lege honen ondorioetarako, lankidetzako etxebizitzatzat ulertzen da familia anitzeko eraikin batez edo gehiagoz edo etxebizitza familia-bakarrez osaturiko bizitoki-multzoa, bizitoki-unitate

bat osatzen duenean eta haren jabari-titulartasuna etxebizitza-kooperatiba batena denean, halako moldez non kooperatibaren bazkideek erabilera-eskubide banakatuak baitituzte bizitoki-unitate bakoitzaren gain.

2. Honako hauek osatuko dute lankidetzazko etxebizitza:

a) Bazkideei beren erabilerarako lagatako etxebizitza edo espazio pribatiboak.

b) Bizitoki-multzoaren elementu amankomunak, Kode Zibilaren 396. artikulua araberak.

c) Erkidego-erabilerakoak eta lankidetzazko zerbitzuak ematekoak diren gune eta espazio konpartituak.

3. Lankidetzazko etxebizitza arautuko duen berariazko araudi bat onesten ez den bitartean, aplikatu beharrekoa izanen da Kooperatibei buruzko uztailaren 16ko 27/1999 Legearen I. tituluaren X. kapituluaren 3. atalean xedatzen dena eta Nafarroako

Foru Komunitateko kooperatiba-alorreko araudi indarduna.

4. Zilegi izanen da berariazko dirulaguntzak ezartzea etxebizitza-kooperatiben edo kooperatiba-federazioen eraketa sustatzeko eta haien antolatari eta hedapenari laguntzeko, eta higiezinak lankidetzazko etxebizitzatarako erabiliak izateko proiektuak, sustapena edo birgaikuntza egitea finantzatzeko.

Halaber, zilegi izanen da sustapen fiskaleko beste neurri batzuk aurreikustea eta jadanik badauden dirulaguntzen aplikazioa aipatu jarduketan sustapenera hedatzea”.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

Hori ezertan galarazi gabe, foru lege honen artikulua bakarraren lehen apartatutik bederatzigarrenera bitartekoek 2025eko abenduaren 1etik aurrera izanen dute indarra.

## **11-25/PRO-00017. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzen duena**

### *OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko azaroaren 20an egindako bilkuran, ez du aintzat hartu Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena, zeina Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2025eko urriaren 7ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-25/PRO-00018. Foru-lege proposamena, nekazaritza-, abeltzaintza- eta oihan-sektoreetan karbono-kredituen ziurtapena eta komertzializazioa arautzeko**

### *OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko azaroaren 20an egindako bilkuran, ez du aintzat hartu nekazaritza-, abeltzaintza- eta oihan-sektoreetan karbono-kredituen ziurtapena eta komertzializazioa arautzeko foru-lege proposamena, zeina Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2025eko urriaren 14ko 118. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

**11-25/PEOP-00001. Deialdia, oposizio bidez betetzeko Nafarroako Parla-  
mentuaren zerbitzupeko sistema informatikoetako goi-mailako tekni-  
karia izateko plaza bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa.**

**Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda**

123/2025 Ebazpena, azaroaren 20koa, Nafarroako Parlamentuko lehendakariarena, zeinaren bidez onesten baita aipatutako prozeduran onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda.

2025eko urriaren 2ko 197. NAO n argitaratu zen Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko sis-

tema informatikoetako goi-mailako teknikaria izateko plaza bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko deialdia, eta haren 5. oinarrian ezarritakoarekin bat, honako hau EBAZTEN DUT:

1. Izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak onestea. Hona:

**1.1) IZANGAI ONARTUAK:**

| Izen-abizenak                   | Desgaitasuna du | Baliabideak egokitzea eskatu du |
|---------------------------------|-----------------|---------------------------------|
| Aguirre Cascallana, Gorka       |                 |                                 |
| Agurruza Mutuberia, Maria Luz   |                 |                                 |
| Arce Guillen, Jose Maria        |                 |                                 |
| Arrondo Martinez, Luis Miguel   | BAI             | EZ                              |
| Blanco Anes, José Manuel        |                 |                                 |
| Casado Ibarrola, Fernando Jesús |                 |                                 |
| Hernández Rabal, Ana Isabel     | BAI             | EZ                              |
| Izkue Mendi, Edurne             |                 |                                 |
| Latasa Echaniz, Félix           |                 |                                 |
| Leal García, Eduardo            |                 |                                 |
| Lezaun Echaury, Iosu Eder       |                 |                                 |
| Liaño Liaño, Pedro              |                 |                                 |
| Macua Sádaba, Carlos Ezequiel   |                 |                                 |
| Martín Orbegozo, Aitor          |                 |                                 |
| Mutilva Contreras, Maria Teresa |                 |                                 |
| Oscos Asiain, Aitziber          | BAI             | EZ                              |
| Saralegui Díaz, Alejandro       |                 |                                 |
| Sola Núñez, Iñigo               |                 |                                 |
| Solis Alonso, Maria Cristina    |                 |                                 |
| Ugalde Mesanza, Andoni          |                 |                                 |
| Ugalde Ojer, Javier Ignacio     |                 |                                 |
| Vázquez Arteta, Asier           |                 |                                 |
| Ventoso Olmo, Igor              |                 |                                 |

**1.2) IZANGAI BAZTERTUAK:**

| Izen-abizenak           | Desgaitasuna du | Baliabideak egokitzea eskatu du | Baztertze arrazoia |
|-------------------------|-----------------|---------------------------------|--------------------|
| Berrozpe Garcia, Daniel |                 |                                 | (1)                |
| Justel Calvo, Rafael    |                 |                                 | (2)                |

(1) Ez ditu ordaindu azterketa-eskubideak (deialdiaren 3.8 oinarria).

(2) Ez du aurkeztu deialdian parte hartzeko eskabidea, I. eranskineko ereduaren arabera, deialdiaren 3.2 oinarrian eskatzen dena.

**2.** Hauek izanen dira deialdi honetako epaimahai kalifikatzaileko kideak:

Lehendakaria: Yolanda Ibáñez Pérez andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen idazkaria.

Ordezkoa: Adolfo Araiz Flamarique jauna, Nafarroako Parlamentuko bigarren idazkaria.

Epaimahaikidea: Asun Marzal Parra andrea, Nafarroako Parlamentuko Informatikako, Ikus-entzunezkoen Sistemetak eta Teknologiako Zerbitzuko burua.

Ordezkoa: Maria Jesús Valiño Larrea andrea, Errioxako Parlamentuko Informazio eta Artxibo Sistemen Zerbitzuko burua.

Epaimahaikidea: José Manuel García Sánchez jauna, Asturiasko Printzerriko Batzar Nagusiko Mantentze eta Ikus-entzunezko Baliabideen Ataleko burua.

Ordezkoa: Agustín Cernuda del Río jauna, Asturiasko Printzerriko Batzar Nagusiko Informatika Ataleko burua.

Epaimahaikidea: Josetxo Martínez Itoiz jauna, Nafarroako Parlamentuko Prentsako atalburua.

Ordezkoa: Miguel Ángel Laurenz Itoiz jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Idazkaria: Ignacio Ordoki Guarch jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

Ordezkoa: Isabel Cañas Palacios andrea, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

**3.** Agintzea argitara dadila ebazpen hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Parlamentuaren webgunean.

Iruñean, 2025eko azaroaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**J saila:**  
**PONENTZIAK**

---

**11-23/PON-00002. Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertze eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentzia**

*TXOSTENA BUKATZEKO EPEA LUZATZEA*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertze eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentziaren erabakia, 2025eko azaroaren 21ekoa. Hona testua:

“1. Ponentziaren lanak bukatzeko epea **2026ko abenduaren 31ra arte** luzatzea”.

Iruñean, 2025eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-23/PON-00002. Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertze eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentzia**

*SEIGARREN ARAUA ALDATZEA*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Estellerriaren garapen sozioekonomikoa aztertze eta hobekuntza-proposamenak ezartzeko ponentziaren erabakia, 2025eko azaroaren 21ekoa, zeinaren bidez seigarren araua aldatzen baita. Hona testua:

"Ponentzian eginen diren agerraldiak irekiak izanen dira hedabideentzat eta ikus-entzunezko bitartekoak erabiliz erretransmitituko dira, ponentziak salbuespenez ateak itxita izanen direla erabakitzen duen kasuetan izan ezik. Bilera hauek ponentziako lehendakariaren zuzendaritzapean eginen dira.

Hark, bilera-eskatzaillearen mintzaldiaren ondoren, agerraldia egin behar duenari emanen dio hitza, eskaturiko gaiari buruzko informazioa azal dezan, gehienez ere hamabost minutuz. Ondoren, ponentziako kideek izanen dute hitza, galderak egin edo haien jarrera azaltzeko, gehienez ere hamar minutuz. Bilera bukatuko da agerraldira etorritakoen erantzunarekin, zeina gehienez hamar minutukoa izanen baita agerraldira etorri direnak lau baldin badira, edo bost minutukoa etorri direnak lau baino gutxiago baldin badira”.

Iruñean, 2025eko azaroaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

